

Euskal Herria

euskaldunerantz

KORRIKA

ofizialtasuna



EUSKAL ESTATUA
EZKERRETIK ERAIKIZ



Badator Korrika! Bi urteroko hitzorduari hutsik egin gabe hemen dugu Korrika. Gure mendietako errepide aldapatsuetan gora, Erriberako lautada zabalei aurre eginez, gau luzeetan atsedetik hartu gabe, elurte eta euriteei aurre eginez,... baita herri honen etsaiek ezarritako hamaika oztopo, kontrol eta mugak gaindituz ere, ortzi-mugan Korrikaren lekukoa tipi-tapa azaltzen zaigu. Eskuz esku igaro den lekukoa, belaunaldi batetik hurrengora igaro dena, hurrengo belaunaldiei ere luzatuko dieguna. Herri honen bizi nahia simbolizatzen duen lekukoa; euskara irau-narazi eta euskaraz bizi nahi duen herriaren sinboloa.

Euskal Herriarekin batera euskara garai erabakigarrian aurkitzen da. Euskarak ere aldaketa garaia bizi du. Aldaketa hau norabide egokian emango dela ziurtatzea euskaldunon esku dago; gure esku dago mendetako galerarako joera itzuli eta euskarari, eta ondorioz Euskal Herriari, etorkizuna ziurtatuko dion MARKO DEMOKRATIKOA eskuratzea.

Azken hamarkadetan, hiltzorian zegoen euskarari hauspoa eman eta neurri bateko berreskurapena lortu da euskalgintzaren, eragile batzuen eta herritarren ekimenez. Baina indarrean dauden marko juridiko-politikoaren arabera euskararen berreskurapen-lanak berea eman du. Euskaltzaleon ekimenez adierazle bat edo beste hobetu dezakegu, euskara neurri mugatu batean zabaltzen jarraituko dugu (zalantzarik gabe egunez egun egin beharreko lana). BAINA EZ DA NAHIKOA. Bide honetatik ez diogu euskarari etorkizuna ziurtatuko, are gutxiago EUSKAL HERRI EUSKALDUNA erdietsiko.

Euskaraz biziko den herria gorpuzteko,

Euskal Herri euskalduna gauzatzea ahalbidetzeko, euskararen aldeko lanean garai berria abiatu beharra dago. Euskalgintzak eta euskaltzaleok urteetan aldarrikatu dugun aldaketa gauzatzeko tenorea iritsi da; baina hau ezin da edozein modukoa izan. Sektore erregionalistek aldaketa-premia hau indarrean dauden menpeko hizkuntza-politikak eraberritzeko baliatu nahi dute, herritarren gogoari eta euskararen beharrei IRUZUR eginez. Euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzen ez dituzten eta euskara azpiratuta egotera zigortzen duten hizkuntza-politikei aurpegia garbitu nahi diete muina bere horretan utziz. Honela ulertu behar da Euskara 21 bezalako eztabaidak, Nafarroako Euskarabidea eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoaren sorrera, eta, hauen eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko lankidetzak-akordio eta azpi-jokoak.

Aldaketa horren muina euskarari izaera ofizial osoa eta erreala ematean kokatzen da. OFIZIALTASUN honek euskara Euskal Herriko hizkuntza nazional, berezkoa eta lehentasunezkoa izendatuko du; eta, euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatuko ditu. Bide honetatik hizkuntza-politika berria aplikatzeko aukerari ateak irekiko zaizkio. Bide honetatik soilik lortuko da euskara irau-naraztea, Korrikaren lekukoa bezala euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzea.

Makina bat lan daukagu egiteko Euskal Herria euskalduntze bidean. Korrikaldiaren hurrengo tarteko-helmuga euskararen ofizialtasunean kokatua dugu. Ekin diezaiogun indar gehiagorik euskalduntzeari! Heldu euskararen aldeko lanari eta borrokarari!

